



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko urtarrilaren 19a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza goiztiarra arautzen duen foru dekretuari zenbait neurri gehi diezazkion. Akats zuzenketa (3. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Tuterako “Vencerol” pisu funtzionala dagoen eraikinaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak interneten bidez ematen duen informazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Kirolaren bidezko Hezkuntzaren Europako Urteko jarduerak antolatzeko prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Osasun Kontseiluaren eta Gizarte Ongizate Kontseiluaren gaineko zenbait auziri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, kontzientzia eragozpena alegatzen duten profesionalen buruz egindako zenbait galdera errepikatzekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Tuterako “Lejías Arigita” enpresari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, etxeko ospitalizazioko sistema ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, N-120 errepidetik Lizarragako mendatera igotzeko tartearen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, trafiko arloko eskumenen gaineko hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, intsulina isurtzeko ponpen finantzaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Tuterako Erruki Etxean nahiz Foru Komunitateko beste zahar-etxe batzuetan farmazia zerbitzua jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, medikuen grebak izan dituen ondorioen aurrean Nafarroako Gobernuak izan duen jokabideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Akats zuzenketa ([19. or.](#))
- Enkanterako deialdia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren gaztelaniazko eta euskarazko edizioak eta Nafarroako Parlamentuko Bilkura Egunkaria 2005ean inprimitu, paketatu eta banatzea adjudikatzeko. Enkantea eman gabe utzi da ([19. or.](#)).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza goiztiarra arautzen duen foru dekretuari zenbait neurri gehi diezazkion.

AKATS ZUZENKETA

2004ko abenduaren 7ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordearen erabakia argitaratu zen, mozio hau bazter uzten zuena: "Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza goiztiarra arautzen duen foru dekretuari zenbait neurri gehi diezazkion". Erabaki hori argitaratu zen adierazitako mozioari ez zegokion ofizio bat erabiliz. Hori dela eta, hona hemen egin beharreko akats zuzenketa:

"Nafarroako Parlamentuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2004ko azaroaren

23an egindako bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozioa: "Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza goiztiarra arautzen duen foru dekretuari zenbait neurri gehi diezazkion". Mozio hori 2004ko azaroaren 2ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen."

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tuterako “Vencerol” pisu funtzionala dagoen eraikinaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak Tuterako “Vencerol” pisu funtzionala dagoen eraikinaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 10eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du Tuterako VENCEROL pisu funtzionala dagoen eraikinaren egoerari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluari eta hurrengoiei jarraikiz:

Galdera honetan egiten diren bost galdekizunei erantzun baino lehen, esan behar dut 2004ko apirilaren 1ean Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko Gizarte Ongizateko zuzendari nagusiak eta Gai Ekonomikoetarako eta Inbertsioetarako Zerbitzuko zuzendariak bilera egin zutela “Vencerol” pisu funtzionalaren zerbitzua kudeatzeko ardura duen zuzendaritzarekin. Bilera horretan erabiltzaileak lekualdatzeari buruzko asmoaren berri eman zitzaion, baita aurreikusi ditugun egokitzetza eta hobekuntza lanen berri ere. Hain zuzen, Parlamentuko Erregistroan 2004ko apirilaren 27an sartu ziren ondoko galderetan lan horiei buruzko azalpenak emanen dira:

1.- Egin al da azken urteetan obraren bat pisu horren egoera hobetzeko?

“Vencerol” pisuaren hondamen egoera ikusirik, departamentu honek Tuterako beste lokal batean, hain zuzen Mariaren Konpainiako mojak egon

ziren lokalean, obrak egitea erabaki zuen, “Vencerol” pisuko erabiltzaileak hara lekualdatzeko. Horrenbestez, “Vencerol” pisuan ez zegoen edozein eraikinetan egin behar diren mantentzeko, kontserbatzeko eta konpontzeko obrak baino gehiagorik egin beharrik. Kasu horretan lanen arduraduna adjudikazioa hartu zuen enpresa da, zentro itundua baita.

2.- Ba al du Departamentuak obraren bat egiteko asmorik ez dadin eraikina gehiago hondatu?

Bai. Erabiltzaileak lehen Mariaren Konpainiako mojak egondako eraikinera lekualdatu ondoren, egokitze lanak egingo dira “Vencerol” pisuan, bosgarren galderaren erantzunean azaltzen den moduan. Lan horien xedea da bukatutakoan oraingo erabiltzaileak berriro hartzea, Mariaren Konpainiako mojen erakinean behin betiko egokitze lanak egiten diren bitartean.

3.- Ba al du Departamentuak pisu horren ekipamenduan inbertsiorik egiteko asmorik?

Bai. Egokitze lanak egin ondoren, lokala ekipatzeko inbertsioa egingen da.

4.- Aztertu al du Departamentuak ezgaitasun intelektual arina eta ertaina duten 18 egoiliarrek Tuteran bertan dagoen beste eraikin batera eramateko aukera, hain zuzen ere Mariaren Konpainiako mojek orain gutxi arte erabilitako komentura?

Bai. Horren berri eman zitzaion “Vencerol” pisu funtzionalaren zerbitzua kudeatzeko ardura duen zuzendaritzari 2004ko apirilaren 1ean egin zuten bileran.

5.- Erantzuna baiezkoa izanez gero, asmorik ba al du Departamentuak komentuen birmoldatze obrarik egiteko, eraikina 18 egoiliarren beharretara egokitzeko?

Mariaren Konpainiaren komentua erabili ahal izateko gutxieneko obrak egin ondoren, hasiera batean departamentu honek baloratu zuen lokal

hori erabiltzea diagnostiko bikoitza duten pertsonentzako 15 plaza gehiago sortzeko, betiere erai-kinak ematen dituen aukerak kontuan hartuta, besteak beste. Horri buruzko azalpenak eman zitzaizkion parlamentuari "Izquierda Unida de Navarra/Nafarroako Ezker Batua" parlamentu-taldeak eginiko galdera baten erantzunean. Aukera hori baztertu egin zen ordea, aipatu eraikinak ez baititu betetzen beharrezko baldintza arkitektonikoak bi baliabide horiek erabat bereizirik funtziona dezaten. Orduan proposamen tekniko bat egin zen arren, baztertu egin zen, praktikan ez zelako bide-ragarria.

Hori dela eta, lanak modu egokian egin ahal izateko eta aldi berean erabiltzaileei zerbitzua bermatu ahal izateko, pasa den apirilean Mariaren Konpainiaren eraikina behin-behinekoz egokitzeko egin beharreko izapideak hasi ziren. Aurreikuspe-

nen arabera, datorren uztailean "Vencerol" pisuko erabiltzaileak aipatu eraikinera lekualdatuko dira.

"Vencerol" pisua hustu ondoren egin beharreko obrak egin eta ekipatuko da. Horren ondoren, bigarren eta hirugarren galderetan azaldu bezala, erabiltzaileak berriro lekualdatuko dira pisu horretara.

Orduan hasiko dira egokitu gabe geratu den Mariaren Konpainiaren erakinen behin betiko lanak, diagnostiko bikoitza edo adimen-gaixotasuna duten pertsonak erabili ahal izateko.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 24an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak interneten bidez ematen duen informazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak interneten bidez ematen duen informazioari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 10eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak interneten bidez ematen duen informazioen kudeaketari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoiei jarraikiz:

1. Nor arduratzen da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak Internetez eskaintzen duen informazio birtuala kudeatzeaz?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua osatzen duen zuzendaritza nagusi, erakunde autonomo eta institutu bakoitzean web orriaren arduradun bat dago, web orria kudeatzen eta mantentzen duena. Arduradun horiek guztiek web orria kudeatzeko taldea osatzen dute, departamentuko Prentsa Bulegoarekin eta kontseilariaren kabineteburuarekin koordinatuta.

2. Zenbateko maiztasunaz gaurkotzen dira aipatu departamentuko web orrian argitaratzen diren datuak eta informazioak?

Datuak eta informazioak sortu eta hiru eguneko epean gaurkotzen dira, betiere ahal bada, hau da, gure antolamendurik kanpokoak diren giza baliabide eta/edo baliabide teknikoek ahalbidetzen badute.

3. Ba al dago etorkizuneko planik Departamentuak sortzen duen informazioa kudeatzeko eta etengabe gaurkotzeko?

Epe ertainean departamentuko web orria navarra.es atari birtualera egokitu behar dugu pixkana, atari horretan Nafarroako Gobernuak eskaintzen dituen zerbitzu eta informazio birtual guztiak integratzen baitira.

4. Ba al dago jakiterik zenbat herritarrek erabiltzen duten Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren informazio birtuala?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren web orriak 50.000 bisita jaso zituen 2003. urtean.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren web orriak, zeinek lotura zuzena duen bai Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren web orriarekin, bai bertan eskaintzen diren hainbat zerbitzu eta informazioarekin, 700.000 bisita izan zituen urte berean.

5. Zein aurrekontu du Departamentuak informazio orokorra, eta horren barruan, Internet bidezko informazioa kudeatzeko?

Departamentu honek ez dauka web orria kudeatzeko berariazko kontusailik, zeren eta, lehen galderaren erantzunean azaldu dudana bezala, departamentuko langileak, beharrezko prestakuntza jaso ondoren, arduratzen baitira horretaz.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 24an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Kirolaren bidezko Hezkuntzaren Europako Urteko jarduerak antolatzeko prozesuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Kirolaren bidezko Hezkuntzaren Europako Urteko jarduerak antolatzeko prozesuari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 10eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Kirolaren bidezko Hezkuntzaren Europako Urteko jarduerak antolatzeko prozesuari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoiei jarraikiz:

1. Nafarroan zein izan da Kirolaren bidezko Hezkuntzaren Europako Urteko jarduerak antolatzeko prozesua?

Europako Kontseiluak eta Europako Parlamentuak 2004. urtea "Kirolaren bidezko Hezkuntzaren Europako Urte" izendatu zuten, Atenasko Joko Olinpikoak ere egin behar diren honetan.

Europako Batasuneko kide den herrialde bakoitzean jardueren koordinazioa gobernuaren erakunderen bati dagokio. Espainiaren kasuan, Kirolen Kontseilu Nagusiari. Erakunde hori da urte hau ezagutarazi behar duena eta autonomi eta udal administrazioak ospakizunetan inplikatu behar dituen. Horretarako, Espainian Kirolaren bidezko Hezkuntzaren Europako Urtearen Espainiako Komisio Nazionala eratu da.

Nafarroan, berriz, Nafarroako Gobernuari dagokio jarduerak sustatzea, baita bestelako kirol edo hezkuntza erakundeak jarduera horiek egiteko bultzatzea ere. Horri lotuta, Hezkuntza Departamentua eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua elkarlanean ari dira.

Bi departamentu horiek batzorde bat eratzea erabaki dute. Bertan gizarteak eta erakundeek ordezkaritza zabala izanen dute. Batzordeak Kirolaren bidezko Hezkuntzaren Europako Urteko jarduera egutegia onartuko du, baita jarduera horien berri eman ere, nafarrek ezagut ditzaten. Honekin batera doan eranskinean koordinazio batzorde horren osaera azaltzen da.

Kirolaren bidezko Hezkuntzaren Europako Urtea koordinatzeko batzordea Nafarroan Kirol eta Gazteria Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako martxoaren 23ko 201/2004 Ebazpenaren bidez eratu zen. Batzorde horrek bi bilera egin ditu maiatzaren 27ra arte. Lehen bilera martxoaren amaieran egin zen, eta bertan Europako Urte-

ko adierazpena eta 2004ko ekintza egutegia onartu ziren.

Ekintza egutegia prestatu aurretik, Hezkuntza Departamentuak eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak gutun bat bidali zieten Foru Komunitateko erakunde publiko eta pribatu guztiei, Europako Urte honetan egiteko jarduerak proposa zitzaizkien.

Egutegia www.cfn Navarra.es web orrian kontsultatu daiteke, eta bertan administrazioak, udalek eta beste erakunde batzuek sustatutako jarduerak agertzen dira.

Batzordeak maiatzaren 26an egin zuen bigarren bilera, egindako jarduerak baloratzeko, "Nafarroako Kiroltasunaren Eguna" (ekainaren 10a) prestatzeko eta Sevilla C.F eta C.A. Osasuna taldeen arteko partidari izandako indarkeriazko jarraia gaitzesteko adierazpen bat egiteko.

2. Nola parte hartu dute ikastetxeek egin diren jardueren prestaketan?

Kirolaren bidezko Hezkuntzaren Europako Urtea ikastetxeetan iragartzeko lana Hezkuntza Departamentuaren ardurapean geratu da nagusiki.

Bere aldetik, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuaren bitartez, ikastetxeetan egiteko lehiaketa bat bultzatu du. Lehen hezkuntzako ikasleen artean kiroltasunaren balioak sustatzeko Edutranqui lehiaketa egin da, marrazketa eta ipuin modalitateetan, euskaraz eta gaztelaniaz, eta bertan 10.000 ikasle baino gehiagok hartu dute parte. Laster banatuko dira lehiaketa horri dagozkion sariak.

Lehiaketa hori egiteko, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuak aurkezpen gutun bat bidali zuen Nafarroako ikastetxe guztietara. Horrekin batera haurrentzako koaderno bat ere bidali zen, haur bakoitzak jarduerak egin zitzaizkien.

3. Egin al da bilerarik ikastetxeekin?

Bere aldetik, Hezkuntza Departamentuak ondoko jarduerak antolatu ditu:

1. Programazio eredu bat diseinatzea, gorputz-eta kirol-ekintzak dinamizatzeke eta sustatzeko.

2. Garbi jokatzeko irakasteko unitate didaktikoak prestatzea.

3. Lehen hezkuntzako 4. mailako ikasleentzako kirolari buruzko unitate didaktiko bat prestatzea, ingelesez.

4. Ekainaren 10a ezartzea Kiroltasunaren Eguna gisa.

5. Kiroltasunaren eguna ospatzeko proiektu onenak saritzeko lehiaketa. Lehiaketaren epea ez da itxi oraindik.

6. Arlo horretako irakasleentzako prestakuntza jardunaldi bat, lizentziatuen elkargoak lagunduta.

7. Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak eskutitza bidali zuen ikastetxe guztietara, Europako ekimen horretan parte hartzera gonbidatzeko. Eskutitzarekin batera ekimen hori dela eta prestatutako liburuxkak igorri ziren.

4. Zein izan da eginiko bileren egutegia?

Ikastetxeekin eginiko bilerak, Edutranqui lehiaketari buruzkoa izan ezik, Hezkuntza Departamentuak egin ditu.

5. Zein da "Koordinazio Batzordea" izenekoaren eginkizuna?

201/2004 Ebazpenaren arabera, hauek dira koordinazio batzordearen eginkizunak:

– Zenbait sektore publikok zein pribatuk eginen dituzten ahalegin guztiak bateratzea eta, zehazki, Kirolaren bidezko Hezkuntzaren Europako Urteko ospakizunak erabaki eta haien zuzendaritza-lanak egitea.

– 2004 urtean garatzeko ekitaldien programa bat prestatu eta erabakitzea, baita ekimenak koordinatzea ere, entitate sustatzaileen autonomia errespetatuz.

– Urtean lortu nahi diren helburuak zabaldu eta Kirolaren bidezko Hezkuntzaren Europako Urteko adierazpena onestea.

– Parte-hartzea antolatu, sustatu eta koordinatzea.

– Jarduerak ezagutzea eta sustatzea.

– Urtearen amaieran oroit-idazkia prestatzea, programan jasotako jarduketari buruz, eta behar bezala hedatzea.

– Kirolaren bidezko Hezkuntzaren Europako Urtean garatu beharreko programa osatzen duten jarduerak betetzeaz arduratuko den batzorde iraunkorra izendatzea.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 27an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

ERANSKINA
KIROLAREN BIDEZKO HEZKUNTZAREN EUROPA-
KO URTEA NAFARROAN KOORDINATZEKO
BATZORDEAREN OSAERA

Batzordeburua:

Javier Trigo Oubiña, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailea.

Batzordekideak:

Carlos Esparza Sáez, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri zuzendari nagusia

Fermín Villanueva Ferreras, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusia.

Teresa Aranaz Jiménez, Emakumearen Institutuko zuzendari kudeatzailea.

José María Echeverría Larrea, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko Kirol zuzendariordea.

Ana Pineda Abel de la Cruz, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko Gazteria zuzendariordea.

Jesús Javier Marcotegui Ros, Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria.

Enrique Banús Irusta, Nafarroako Unibertsitateko Europako dokumentazio-zentroko zuzendaria.

José Luis Iriarte Angel, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Europarekiko Konbergentzia eta Nazioarteko Harremanetarako Errektoreordea.

Gabriel Pérez Gómez, Nafarroako Prentsa Elkartearen lehendakaria.

Dolores Eguren Apesteguía, Europako Eraikuntza Prozesuan Parte Hartzeko Zerbitzuko zuzendaria.

Javier Macaya San Martín, Nafarroako Atletismo Federazioaren lehendakaria.

Javier Aguirre Zabaleta, Nafarroako Gorputz Hezkuntzako eta Gorputz Jardueren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatuen Elkargo Ofizialeko lehendakaria.

Jerónimo Gómez Ortigosa, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko lehendakaria.

Dámaso Munárriz Díez de Ulzurrun, Nafarroako Kutxa Fundazioko zuzendaria.

Galdera, Nafarroako Osasun Kontseiluaren eta Gizarte Ongizate Kontseiluaren gaineko zenbait auziri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Osasun Kontseiluaren eta Gizarte Ongizate Kontseiluaren gaineko zenbait auziri buruz foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 10eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Osasun kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroako Osasun Kontseiluaren eta Gizarte Ongizate Kontseiluaren gaineko zenbait auziri buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Noiz egin du bilera azkeneko aldiz kontseilu horrek?

Nafarroako Osasun Kontseiluak 1996ko maiatzaren 26an egin zuen bilera azkeneko aldiz, Nafarroako Jauregiko lehen solairuko bilera aretoan.

Zein dira kontseilu horietan jorraturiko gaiak?

Bilera hartan gai hauek jorratu ziren:

1. 1995eko abenduaren 19an egin zen aurreko bileraren akta irakurtzea eta onestea.
 2. Osasunbidearen 1995eko oroit-idazkiaren proiektua aurkeztea.
 3. Laguntza espezializatuaren kudeaketaren helburuak 1996 urterako. Iruñerria.
 4. Oinarrizko laguntzaren kudeaketaren helburuak 1995 urterako. Oinarrizko laguntzako taldeekin adostu beharreko helburuei buruzko proposamena.
 5. Bizimodu osasuntsuei eta osasuna sustatzeari buruzko programa.
 6. Nafarroako oinarrizko osasun laguntzaren plana. Ildo nagusiak.
 7. Eskariak eta galderak.
- Nork parte hartu zuen bilera horretan?

Kontseiluburua: Fernando M.^a Puras Gil jauna. Osasun kontseilaria.

Idazkaria: Javier Aldaz Berruezo jauna. Osasun Publikoaren Institutuko zuzendaria.

Kontseilukideak:

Jesús M.^a Fernández Díaz jauna, Osasun zuzendari nagusia.

Ángel Solchaga Catalán jauna. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea.

Mariano Gallo Fernández jauna. Nafarroako Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzailea.

Fernando Escolar Castellón jauna. Tuterako Osasun Barrutiko zuzendaria.

Antonio Merino Díaz de Cerio jauna. Lizarrako Osasun Barrutiko zuzendaria.

Ignacio Sánchez Nicolay jauna. Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala.

Javier Cubillas Ruiz jauna. Nafarroako Farmazilarien Elkargo Ofiziala.

Pablo de Miguel Adrián jauna. Nafarroako Eri-zaintzako Diplomatuaren Elkargo Ofiziala.

Fermín Yoldi Montaña jauna. Nafarroako Odontologoaren Elkargo Ofiziala.

Pablo Bretos Peralta jauna. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

José Carlos Garde Celigüeta jauna. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

Faustino León Chivite jauna. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

María Luisa Barrena Landaluce andrea. Irache kontsumitzaileen elkarteak.

Teresa Barberena del Río andrea. ELA sindikatua.

Carmen Bravo Sueskun andrea. Langileen Komizioak sindikatua.

Ricardo Armendáriz Tainta jauna. Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 26an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroako eta Gizarte Ongizate Kontseiluaren gaineko zenbait auziri buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua-ren 184. artikuluari eta hurrengo jarraikiz:

1. Noiz egin dute bilera azkeneko aldiz kontseilu horrek?

2003ko abenduaren 16a.

2. Zein dira kontseilu horietan jorraturiko gaiak?

Garai hartan Kontseiluko burua zen Reyes Berruezo Albéniz andreak gai zerrendan sartu zituenak:

1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta kasu bada, onestea.

2. Kontseilukide berriak aurkeztea.

3. Departamentuaren egituran izandako aldaketan berri ematea.

4. Ezgaituen Planaren egoeraren berri ematea.

5. Aurrekontuaren 2003ko betetze-maila.

6. 2004 urterako aurrekontu proiektua.

7. Legegintzaldirako helburuak.

8. Eskariak eta galderak.

3. Nork parte hartu zuen bilera horretan?

Bilera horren aktan agertzen denez, bertan ondokoek hartu zuten parte:

Kontseiluburua:

• Reyes Berruezo Albéniz andrea, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria.

Kontseilukideak:

• José Luis Alli Fernández jauna, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri zuzendari nagusia.

• Carmen Aguilera Salcedo andrea, Familia zuzendari nagusia.

• Andrés Carbonero Martínez jauna, Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuko zuzendaria.

• M^a Jesús Gutiérrez Álvarez andrea, Plangintza Zerbitzuko zuzendaria.

• Joaquín García Guajardo jauna, Inbertsio Zerbitzuko zuzendaria.

• Sandra Cavero Brújula andrea, Familia Zuzendaritza Nagusiko Plangintza Zerbitzuko zuzendaria.

• Francisco Javier Esparza Sánchez jauna, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Administrazio eta Giza Baliabideen zuzendariordea.

• M^a Jesús Vicente Goicoechea andrea, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Familiaren eta Sektore Zerbitzuen zuzendariordea.

• Milagros Urzainqui Asín andrea, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Oinarrizko Laguntzaren eta Gizarteratzearen zuzendariordea.

• Fernando Soria Martínez jauna, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa.

• Tomás Escriche Serrano jauna, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa.

• Fernando Ruiz de Alda Rodríguez jauna, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa.

• Carmen Juanmartiñena Aldaba andrea, Langileen Komisioak.

• Arantza Biurun Urpegui andrea, Unión General de Trabajadores.

• M^a Teresa Iradiel Ibáñez andrea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

• José Antonio Villanueva Oyarzábal jauna, Gizarte Langileen Elkargoa.

• Ricardo Luque García jauna, Psikologoen Elkargo Profesionala.

• Ismael Cuesta Alfaro jauna, gutxitu psikikoen eta sentsozialen elkarteak.

• Francisco Xabier Arlabán Mateos jauna, gutxitu fisikoen elkarteak.

• M^a Ángeles Estensoro Esquisabel andrea, zaharren elkarteak eta zaharrendako erakundeak.

Idazkaria:

• M^a Luz Munárriz Desojo andrea, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuko idazkari teknikoa.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 24an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, kontzientzia eragozpena alegatzen duten profesionalei buruz egindako zenbait galdera errepikatzekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, kontzientzia eragozpena alegatzen duten profesionalei buruz egindako zenbait galdera errepikatzeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 10eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak kontzientzia eragozpena alegatzen duten profesionalei buruzko galdera egin du. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Espainiako Konstituzioaren 30.2 artikuluan dago jasota kontzientzia eragozpena. Artikulu

horrek betebeharrak militarren arloko kontzientzia eragozpena jasotzen du. Hortik abiatuta, Konstituzio Auzitegiak artikulua hori beste arlo batzuetara egokitu du bere epaien bitartez, hala nola osasun jarduerara.

Orain arte ez da gai horri buruzko beste araubiderik eman, ez estatuan ez autonomia erkidegoetan.

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak zerbitzua ematea bermatzen du, betiere bertako langileen kontzientzia eragozpen eskubidea errespetatuz. Horrela, bada, osasun arloko langileen batek kontzientzia eragozpena alegatuz gero, beste langile baten esku utziko du eskatutako zerbitzua ematea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 27an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcelly

Galdera, Tuterako “Lejías Arigita” enpresari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Tuterako “Lejías Arigita” enpresari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 24ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ana Figueras Castellano jaunak galdera egin du Nafarroako Forunzaingoa Tuterako Lejías

Arigita, S.L. enpresan eginiko ikuskapenari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

- Dirudienez, Tuterako Udaltzaingoa eta Foruzaingoa aspalditik ari ziren kexak jasotzen, Mediavilla ibaira ematen duen “Lejías Arigita S. L.” enpresaren hondakin-uren kolektorean zehar lixiba kiratsa zegoelako, baita kolektorearen inguruko etxebizitzetan ere.

- Poliziaren jarduketak gogorrenak espediente batean jasota daude eta 2003ko irailaren 2an hasi ziren. Egun horretan, Carretera de Alfaro kalean bizi den emakume haurdun batek 112 telefonora deitu zuen eta Tuterako Reina Sofía Ospitaleko larrialdi zerbitzura eraman behar izan zuten. Tuterako Udaltzaingoa eginiko txostenaren arabera, intoxikazio zantzuak zituen, goragalea eta zorabioak. Horretaz gain, emakume horrek medikuei eta

udaltzainei esandakoa jasotzen du txostenak, etxeko hustubideetatik lixiba usaina hartzen zutela esanez. Gertakizun hori jaso zen aldi berean, udaltzainek beraiek lixiba kiratsa aditu zuten Mediavilla ibaian, baita apar orban zuriak ere. o Irailaren 8an, Tuterako alkateak aipatu txostena argazki erreportaje batez lagunduta Foruzaingoari igorri zion.

Irailaren 3an foruzain batzuk gaixotu zen emakumearen etxera joan ziren eta egiaztatu zuten lixiba kiratsa zegoela. Horren akta egin ondoren, laginak jaso zituzten Mediavilla ibaian, Santa María de la Cabeza kaleko zubiaren parean, eta Arazuriko ur-araztegiako laborategira bidali zituzten, azter zitzaten.

- Irailaren 5ean foruzainek eta ingurumen zaindariak kolektorearen kutxeta guztiak ikuskatu zituzten, aipatu enpresatik hasita ibairaino, eta guztietan lixiba usain sendoa atzeman zuten.

- Irailaren 29an foruzainek, berriro ingurumen zaindariaren laguntzarekin, kolektorearen bukaera ikuskatu zuten, Mediavilla ibaian, eta berriro lixiba kiratsa aditu zuten. Hori dela eta, enpresa ikuskatzea erabaki zuten.

- Ikuskapena enpresaren titularraren eta bere semearen aurrean egin zen, eta ondorio hauek izan zituen, laburbildurik:

- Jarduera sailkatuaren lizentzian esaten da enpresak ez duela inolako industria isurketarik sortzen.

- Fabrikazio nabean lixiba botila hautsiak zeuden, baita lixiba lurrean barreiatuta ere.

- Erakus-kutxetak ikuskatu ziren eta lixiba kirats sendoa atzeman zen; laginak hartu ziren Iruñerriko Mankomunitateak azter zitzan.

- Uraren maulazko erabileraren zantzuak atzeman ziren; izan ere, Tuterako Uren Udal Batzarren sareko suteen kontrako ur-hartunetik hartzen zuten ura (eta ziur asko, kontagailuak ez du erregistratzen). Beraz, gertaera horri zegokion salaketa egin zen.

- Eginiko jarduketan emaitza -baita kasuko argazki erreportajearena ere- Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura bidali zen.

- 2003ko urriaren 22an, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Ingurumenaren Integrazioko Zerbitzuak txosten bat igorri zion Tuterako Udalari, horrek "Lejías Arigita S. L." enpresari neurri zuzentzaile jakin batzuk har zitzan eskatzeko, jarduera sailkatuei buruzko erregelamenduari jarraikiz.

Honekin batera doa txostenaren kopia, galdera egin duen parlamentariaren taldeak informazioa izan dezan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 28an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

(Oharra: aipatu txostena foru parlamentariaren eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, etxeko ospitalizazioko sistema ezartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, etxeko ospitalizazioko sistema ezartzeari buruz foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 17ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du etxeko ospitalizazioko sistema ezartzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Etxeko ospitalizazioa laguntza-alternatiba bat da, etxean bertan ospitalean egiten direnen antzeko prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak egi-tea eta zainketak ematea ahalbidetzen duena.

Etxeko ospitalizazio akutua horrela definitzen da:

- zerbitzu mugatua da denboran
- tratamendu aktibo batean datza
- osasun arloko profesionalak egiten dute
- gaixoaren etxean
- gaixoa etxean egonen ez balitz, egoera kliniko horretan behar dituen zainketak akutuen ospitale batean jasoko lituzke.

ETXEKO OSPITALIZAZIOA OSASUNBIDEAN EZARTZEKO ESTRATEGIA.

Mugatze geografikoa

Etxeko ospitalizazioa pixkana ezarriko da Nafarroan. Hasieran, etxeko ospitalizazioko unitate bakarra ezarriko da Iruñerrian, eremu horretako ospitale publiko guztiei zerbitzua modu integratuan emanen diena.

Hasiera batean etxeko ospitalizazioko proiektu pilotu bat ezarriko da, patologia zehatzekin (askotan gertatzen diren prozesu klinikoak, denboran mugatuak, beste zainketa modalitate batzuekin interferentziarik egiten ez dutenak, etab.), zirkuituan, gaixoen zainketan eta abarretan esperientzia lortze aldera

eta ospitalizazio alternatiba horren funtzionamenduari buruzko ebaluazioa egin ahal izateko.

Etxeko ospitalizazioaren zuzendaritza batzordea

Etxeko ospitalizazioa Nafarroan ezartzeko Etxeko ospitalizazioaren zuzendaritza batzordea hartuko da erreferentziatzat.

Batzorde horren helburu orokorra da eztabaida foro bat sortzea, etxeko ospitalizazioa Osasunbidean ezartzearen alderdi estrategikoei buruzko erabakiak hartzeko.

Batzordearen berriazko helburuak hauexek dira:

– Etxeko ospitalizazioak gure sisteman dituen beharrak aztertzea.

– Lortu nahi den ereduari buruzko eztabaida eta azterketa.

– Patologiei buruzko adostasuna:

- etxeko ospitalizazioaren lehen fasean tratatuko direnak.

- adostutako ereduak lortu arte pixkanaka sartuko direnak.

- Behar diren baliabideak (bereziki giza baliabideak) aztertzea. Kopurua eta ezaugarri egokiak.

- Proiektuaren buru izan den pertsonari buruzko eztabaida.

- Etxeko ospitalizazioa ezarri ondoko ospitalberrantolaketa buruzko eztabaida (oheak etab.)

- Proiektu pilotoa eta egin beharreko urratsak ebaluatzea.

Zuzendaritza talde hori laguntza espezializatuko eta oinarritzko osasun laguntzako zuzendariak osatuko dute, baita oinarritzko osasun laguntza espezializatua koordinatzeko planaren taldekoek ere.

Giza Baliabideak

Behar diren giza baliabideei dagokienez, etxeko ospitalizazioaren zuzendaritza batzordeak oraindik ez du erabakirik hartu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 31n

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, N-120 errepidetik Lizarragako mendatera igotzeko tartearen egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, N-120 errepidetik Lizarragako mendatera igotzeko tartearen egoerari buruz foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 17ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du NA-120 errepidetik Lizarragako mendatera igotzeko tartearen egoerari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Lehena.- Ea departamentuak berriki azterketarik egin duen errepide horren egoerari buruz.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak badaki zein den NA-120 errepidearen egoera, Lizarra eta Lizarragako mendatearen artean. Negu gogorraren ostean, errepide horren kontserbazio egoerak nabarmen egin du okerrera. Denbora horretan bideko zuloak konpondu dira, errepidean ibiltzeko gutxienezko baldintza arazoizkoak mantentze aldera.

Bigarrena.- Departamentuak zein informazio duen errepide horren egoerari buruz, bereziki Lizarragako porturako bideei dagokienez.

Zainketa zerbitzuek eta bertako teknikariek badaukate errepidearen gaur egungo egoera eta hobetzeko beharra ebaluatzeko behar den informazio guztia.

Hirugarrena.- Departamentuak errepide hori hobetzeko edo bertan bestelako obrak egiteko zein aurrekontu, exekuzio epe eta abar dauzkan.

Errepideetan orain dela gutxi amaitu den negu-sasoi gogorraren ostean, Lizarrako kontserbazio zentroko hainbat errepideren konpontzeko eta hobetzeko behar ugariak aztertzen ari da Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Zainketa Zerbitzua, haiek hondatuta baitaude. Galderan aipatzen den errepide zatia ere Lizarrako kontserbazio zentroari dagokio, eta aztertzen ari diren errepideen egoera berdintsuan dago.

Behin betiko ebaluazio orokorra egin ondoren azertu egingen da, eta aurrekontuan zenbat diru dagoen eta egin beharreko lanak zenbaterainokoa diren ikusirik, hondatutako errepide zatietan lan mugatuak egingen dira, 2004 urterako ohiko kontserbazio-lanetarako aurrekontuaren kontura.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 28an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, trafiko arloko eskumenen gaineko hitzarmenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, trafiko arloko eskumenen gaineko hitzarmenari buruz foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 17ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeari atxikitako Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du trafiko arloko eskumenen gaineko hitzarmenari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Pasa den otsailean, estatuko administrazioko eta Nafarroako Foru Komunitateko zuzendari nagusien arteko hainbat bileraren ondorioz eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak Barne ministroarekin eta Administrazio Publikoetako ministroarekin izandako harremanen ostean,

trafiko arloko eskumenak gure gain osorik hartu ahal izateko ebatzi gabe zeuden kontuetan aurrera egin zen, baita zerbitzuak eskualdatzeari dago-kionez ere. Kontuan hartuta hauteskunde orokorretarako kanpainak berehala hasi behar zuela, egokitzat jo zen aipatu transferentzia gauzatzeko hurrengo urratsak hauteskundeak egin arte uztea; zehazki, eskualdatu beharreko giza baliabide eta baliabide materialei buruzko eranskinak onartu behar zituen ponentzia teknikoaren deialdia formalki egitearena, baita eskualdatzea onetsi behar duen Transferentzien Batzarraren bilera ere.

Une honetan, Espainiako Gobernuaren osaran izandako aldaketak ikusirik, harremanei berretzeko eskaera egin zaio estatuari eta kasuko ministerioekin bilera egiteko zain gaude, Nafarroako Foru Komunitateak trafiko, ibilgailuen zirkulazio eta bide-segurtasunari buruzko eskumenak berreskura ditzan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 31n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, intsulina isurtzeko ponpen finantzaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, intsulina isurtzeko ponpen finantzaketari buruz foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 17ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras

Castellano andreak galdera egin du intsulina isurtzeko ponpen finantzaketari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Aurreikusirik al du Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak intsulina-ponpak finantzatzea?

Bai, Osasun Departamentuak intsulina isurtzeko ponpa finantzatzeko die behar duten gaixoei.

Zenbat pertsonak dauka beharizan hau?

Orain arte zazpi pertsonari jarri zaie intsulina isurtzeko ponpa Nafarroan.

Zenbatekoa da zerbitzu hori finantzatzearen, material suntsikorraren eta haren mantentzearen gastua?

Intsulina isurtzeko ponparen kostua aldatu egingen da, modeloaren arabera. Osasunbideak lehia-keta publikoa egingen du produktu horien horniketa adjudikatzeko.

Material suntsikorren 2003ko batez besteko gastua 1.280 eurokoa izan da da gaixo bakoitzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 28an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Tuterako Erruki Etxean nahiz Foru Komunitateko beste zahar-etxe batzuetan farmazia zerbitzua jartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Tuterako Erruki Etxean nahiz Foru Komunitateko beste zahar-etxe batzuetan farmazia zerbitzua jartzeari buruz foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 17ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tuterako Erruki Etxean nahiz Foru Komunitateko beste zahar-etxe batzuetan farmazia zerbitzua jartzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun, Tuterako Erruki Etxeak farmazia zerbitzua ezarrita dauka egoitzaren eta hiriko hiru farmaziaren artean eginiko itun bat dela medio. Egoitza horretako pertsonen kopurua behar adina-koa balitz, aztertu al du Osasun Departamentuak zerbitzu berekia izateko aukera?

Gaur egun Tuterako Erruki Etxean farmazia laguntza farmazia bulegoen bidez ematen da.

Osasunbidea farmazia laguntza emateko modua aldatzea aztertzen ari da, eta bi aukera daude: Reina Sofía Ospitaleko Farmazia zerbitzutik ematea edo egoitzan bertan farmazia zerbitzua ezartzea.

Zerbitzu hori Foru Komunitateko beste egoitza batzuetan ezartzerik ba al dago? Baiezkoan, zein egoitzatan?

Farmazia Laguntzari buruzko 12/2000 Legeak Nafarroako Foru Komunitateko gizarte- eta osasun-zentro guztietan farmazia zerbitzuak irekitzea ahalbidetzen du.

Tuterako Erruki Etxean bizi diren zaharrei laguntzeko zerbitzu medikoari dagokionez, jakin ahal izan dut egunean bi orduko kontsulta egoten dela 170 zaharrentzat (horietatik, laguntzadunak 100 dira). Zerbitzu horrek betetzen al du zerbitzu egoki baterako behar den ratioa?

Gaur egun, mendebaldeko Tuterako osasun zentroak ematen die osasun laguntza Tuterako Erruki Etxeko zaharrei. Zentro horretako mediku batek kontsulta du egunero egoitzan, 5 orduz, eta hori egoitzaren beharretarako egokitzen jotzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 31n

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, medikuen grebak izan dituen ondorioen aurrean Nafarroako Gobernuak izan duen jokabideari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, medikuen grebak izan dituen ondorioen aurrean Nafarroako Gobernuak izan duen jokabideari buruz foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 17ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du medikuen grebak izan dituen ondorioen aurrean Nafarroako Gobernuak izan duen jokabideari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak nola bermatu die osasunerako eskubidea medikuen greba dela-eta kontsultak, diagnostikorako probak eta ebakuntzak bertan behera utzi zaizkien gaixoei? Grebarako eskubidea herritarrek osasunerako daukaten eskubideari Nafarroako Gobernuaren adostasunarekin gailendu al zaio?

Betiere grebarako eskubidea errespetatuz, herritarrek osasunerako daukaten eskubidea gutxieneko zerbitzuen bidez bermatu da, zerbitzu horiek grebarako deia egin zuen sindikatuarekin adostu baitziren. Bestalde, hainbat neurri hartu ziren grebak gaixoengan ahalik eta eragin gutxien izan zezan.

Ezinezkoa zenez alde zurretik jakitea zenbat medikuk egin behar zuten greba, greba egunean bertan jakinarazten baitzuten haien erabakia, ondoko neurriak aurreikusi ziren:

– Osasun Departamentuak eta Osasunbideak behin eta berriro eman zuten grebaren berri hedabideen bitartez (prentsa, irratia eta tokiko telebistak), eta alde zurretik eta modu argian azaldu zitzaizen gaixoei haien medikuak ere greba egin zezakeela.

– Gaixoei izan beharreko jokabideari buruzko jarraibide argiak eman zitzaizkien; hain zuzen ondoko aukerak eman zitzaizkien: 1) alde zurre-

tik deitu hitzordua bertan behera uzteko. 2) greba egunean bertan deitu, goizean goiz; horrela, zer mediku greba egiten ari zen eta zer mediku lanean ari zen jakinda, gaixoak jakinen zuen bere medikua greba egiten ari zen ala ez, eta horren arabera jokatzeko, edo 3) medikua greban izanez gero, hitzordua zuen osasun zentrotik telefonoz abisatu arte itxaron. Hala eta guztiz ere, gaixoei esan zitzaizen lehentasunezko zerrenda batean sartuko zirela 15 egun baino lehen hitzordua izan zezaten.

– Goizeko zortzietatik eta bederatzietara bitartean jakiten zen zer mediku ziren greban; beraz, berehala deitzen zitzaizen hitzordua zuten gaixoei berri emateko, hitzordu-hurrenkeraren arabera.

– Gaixoei alde zurretik deitu zitzaizen, ziurrenik ere bere medikuak greba eginen zuela jakinarazteko eta kontsultara ez joateko esateko, gaixoei eragozpenak saiheste aldera.

– Neurri horien eraginkortasunari esker, egunak pasa ahala gero eta gaixo gutxiago geratu ziren osasun etxera joan eta arretarik hartu gabe.

Osasun Departamentuak eginiko iragarpena, gaixo horiek hurrengo hamabost egunetan artatzekoa, nola gauzatuko da, baldin eta kontsultetarako hitzordu-ematea edo proba eta ebakuntzen programazioa jadanik egin badago maiatz guztirako? Hartuko diren neurriak eta eginen diren jarduerak zehaztu.

Lanuzte partzialak zirela medio apirilean kontsultarik gabe geratu ziren gaixoei 15 eguneko epean arreta emateko konpromisoa hartu zuen Osasunbideak, eta hala egin dugu.

Apirilaren 20ko, 22ko, 27ko eta 29ko lanuzteek kaltetutako gaixo guztiei hitzordua eman zaie, nahiz eta maiatzeko programazioa egin egin. Horretarako, neurri hauek hartu ziren:

– Lanuztea egin zen egunaren hurbileko egunetako agendetan bete gabe ziren tarteak erabiliztea.

– Agenda berriak egiterakoan, lanuzteagatik arreta eman gabe utzitako gaixoei hitzordua emateari lehentasuna ematea.

Sindikatuak iragarritako greba-egunetarako hitzordua daukaten gaixoei zergatik ez zaie denbora gehiagorekin jakinarazten, horrela eragozpe-

nak, alferrikako bidaiak, denbora-galtzeak eta bes-telako kalteak ekiditeko?

Gaixoei garaiz abisatu zitzaaien, geneukan informazioaren arabera, eta horrela grebek eragiten dituzten eragozpenak saihestu ziren neurri handi batean.

Grebaren ondorioz kalteturik suerta daitezkeen gaixoei zergatik ez zaie behin eta berriro ematen egin beharreko urratsei buruzko informazioa?

Une oro, behin eta berriro eta modu argian eman dira modu egokian jokatzeko jarraibideak, alferrikako eragozpenak saiheste aldera.

Gatazkak iraun duen bitartean eta mediku bakoitzak grebari buruz zuen iritzia jakin ondoren, gaixoeikiko modu aktiboan jokatzeko hasi ginen, haien medikuek ziurrenik ere greba eginen zutela jakinaraziz eta hitzordura ez joateko gomendatuz. Aldi berean, hitzordu berria ematerakoan lehentasuna izanen zutela esan zitzaaien.

Hurrengo egunetan informazio hori orokor

bihurtu zen eta hori da jarraitu dugun ildo, eta erabiltzaileek oso ondo hartu dute.

Zer arazo dela-eta, greba honek kalteturiko pertsonen ez zaie hitzordu berriaren eguna ematen lehen hitzordua bertan behera uzten den egunean bertan?

Gaixo batzuei kontsultarako hitzordua eman zitzaaien aurrekoa bertan behera geratu zen egun berean; batez ere, lehenengo kontsultetan egin zen hori.

Hala eta guztiz ere, kasu gehienetan hori ez zen posible izan; izan ere, hitzordu berrien lehentasuna ezartzeko espezialitate bakoitzeko agendaren aurretiazko egoera kontuan hartu behar zen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko maiatzaren 31n

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat antzeman da 2005eko urtarrilaren 7ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaraturiko Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdian. Hona zuzenketa:

2.1 oinarrian hau esaten da: "...parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Comptos Ganbera-

ko eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko funtzionarioek..." Horren orde, hau agertu behar da: "...parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Nafarroako Parlamentuko, Comptos Ganberako eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko funtzionarioek..."

Iruñean, 2005eko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Enkanterako deialdia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren gaztelaniazko eta euskarazko edizioak eta Nafarroako Parlamentuko Bilkura Egunkaria 2005ean inprimitu, paketatu eta banatzea adjudikatzeko.

ENKANTEA EMAN GABE UTZI DA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko abenduaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Kontratazio mahaiaren erabakia berrestea eta ONA Gráficas S.A. enpresak aurkeztutako proposamen ekonomikoa ezestea, eta enkantea eman gabe uztea, aurkeztutako eskaintzak gainditu egiten baititu "Zigiluak, banaketa eta poltsa" ata-

lean administrazio-klausulen pleguan ezarritako gehieneko lizitazio prezioak.

2. Adjudikazioaren emaitza Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2004ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

